

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 126.000 euroekin finantzatuko ditu 12 erakundek sustatutako 300 kultur ekintza baino gehiago

90.000 euroekin ere diruz lagunduko ditu arte eszenikoetako bost ekoizpen

Lunes, 17 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak Nafarroako 12 erakundek sustatutako kultur zabalkundeko 300 ekintza baino gehiago finantzatuko ditu, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuak berriki ebatzitako lehiaketa askeko [laguntza-deialdi](#)ari esker; haren bidez, konpainien artean 126.284,92 euro banatuko dira.

Erakunde onuradunak eta haiek lortutako kopuruak honako hauek izan dira: Ateneo Navarro/Nafar Ateneoa (30.000 euro), Nafarroako Azterketa Historikoen Sozietatea (3.905 euro), Nafarroako Bertsozale Elkarte (16.000 euro), Nafarroako Euskal Dantzarien Biltzarra elkarte (17.272 euro), Donejakue Bideko Lagunen elkarte (5.000 euro), Jerónimo Ustariz Nafarroako Gizarte Historia institutua (4.193 euro), Nafarroako Argazki eta Zinema elkarte (6.500 euro), La Caracola kultur elkarte (4.480 euro), Amigos de Cascante "Vicis" kultur elkarte (6.500 euro), Tiza. Komikia Sustatzeko elkarte (26.000 euro), Intangia Aktibo Ukiezinen Babeserako elkarte (6.104 euro), Asociación Katxupin elkarte (330 euro).

Diruz lagundutako proiektuek ondorengo proposamenak aurkeztu dituzte: argazkigintza, arte plastiko, arkeologia eta kultur ondareari buruzko zenbait erakusketa; arte plastiko, zientzia eta teknologia, politika, zinema, euskara, folklore, giza zientziak, literatura, hedabide, gazteria, historia, erlijio, komiki, jabetza intelektual edo Donejakue Bideari buruzko hitzaldiak, mintegiak, solasaldiak, mahai-inguruak eta eztabaidak.

Laguntza horiekin ere bisita gidatuak egingo dira, eta folklore, tailer, liburu-aurrezpen eta jardunaldi monografikoen zabalkundea egingo da, esaterako: XXV. Done Jakueren Jardunaldiak, IV. Komiki Azoka edo Cascanteko Aste Erromatarraren 8. Edizioa

Ekintza horiek guztiak Iruñean egingo dira 2013an, baina baita Nafarroako beste 19 udalerritan ere (Aldaz, Arguedas, Cascante, Etxarri-Aranatz, Elizondo, Espronceda, Erratzu, Estella-Lizarra, Eugi, Huarte, Irurita, Ituren, Larraintzar, Milagro, Erriberri, Tafalla, Tuter, Atarrabia eta Zubiri).

Arte eszenikoen bost ekoizpen 90.000 euroekin finantzatuko dituen beste deialdi bat ebatzi da

Nafarroako Gobernuak, gainera, [enpresa nahiz profesionalentzako](#)

[arte eszenikoen ekoizpenerako diru-laguntzen deialdia](#) ebatzi du 90.000 euroan, eta kopuru horrekin bost konpainiaren proiektuak finantzatuko dira.

Diruz lagundutako proiektuek hainbat diziplinatako proposamenak aurkeztu dituzte –haur-antzerkia, helduentzako antzerkia, dantza eta zirkua–. Erakunde onuradunak eta diruz lagundutako zenbatekoak honako hauek dira: La Nave Producciones Teatrales SL (28.395 euro), Pasadas las cuatro (10.915 euro), Atikus Teatro (29.330 euro), Análisis de los cuerpos en movimiento SL, Fueradeleje (15.000 euro) eta Circunstanzia Zirkua Garaikidearen Konpainia (6.359 euro).

La Nave Producciones Teatrales SL enpresaren lehen proiektuak "El nombre de la rosa" ("Arrosaren izena") obra ezagunaren antzerki-egokitzapena aurkeztu du. Hainbat urtetan Umberto Eco baimena eskatu ondoren nobela horren lehen egokitzapena burutzea erdietsi dute azkenean. Hilketak batzuk gertatzen diren XIV. mendeko abadia beneditar bati buruzko argumentua du. Obrak arrazoiaren argiaren eta fanatismoaren iluntasunaren arteko borroka ere aurkeztu du. Proiektu honek arrakasta handia izan du jendearen nahiz kritikaren artean Atarrabiako kultur etxeko estreinaldian nahiz Caceresko Antzerki Klasikoaren Jaialdian, eta Nafarroako Gobernuaren programa propioen barnean dago; hala, Erriberriko Jaialdian antzeztuko da uztailearen 20an.

Bestalde, Pasadas las cuatro-k "ploc, ploc... PLIK!" haurrentzako ekoizpena aurkeztu du. 0-3 urte arteko haurtxoentzat edo 3-4 urte arteko ikasleentzat sortutako musika- eta antzerki-ikuskitza da, Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin koproduzitutakoa. Ura da gai nagusia, bizitzaren, soinuaren, erritmoaren eta hainbat sentsazioen iturri. Proiektuak interes artistiko eta kultural handia du, zenbait diziplina artistiko batzen baititu (musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak) eta gaur-gaurko hainbat gizarte-sentsibiltate jasotzen baititu (belaunaldi arteko topaketak, publiko berrien sorrera eta ezinduen integrazioa).

Atikus Tetarok "Pobre de mí, Tío Vania", izeneko antzezlanaren aurkeztu du, Chejov-en testu batean oinarritutakoa. Porrot egin duten pertsona-talde bat deskribatzen da bertan, beraien zorigaitz pertsonaletan hondoratuta daudenak, desagertu egingo den bizitza-mota baten gainbeheraren paradigmak. Pertsonaiak ondorengo testuinguruan ageri dira: aristokrazia pixkanaka kontsumitzen ari da indartzen ari den burgesiaren ordena berriaren aurrean, garai bateko distira eta boterea galduz.

Análisis de los cuerpos en movimiento SL, Fueradeleje-k, berriz, "Meeting point" izeneko dantza garaikideko ikuskizuna aurkeztu du. Bi dantzarientzako pieza da eta giza harremanen arteko faseak aztertzen ditu. Dantza ikus-entzunezko lan batekin indartzen da, zine mutuaren filmak gogora ekarri neurri batean. Telebistak agertokian banatuko dira eszenografia modura eta baita besaulki-patioan ere, eta eszena bakoitza konektatzen joango dira, edo nabariaraziz, koreografiaren zati bihurtuz askotan.

Azkenik, Circunstanzia Zirkua Garaikidearen Konpainiak "Oniro" muntaia aurkeztu du. Artistak zirkuko teknikak landuko dituzte, adibidez: lurreko akrobaziak, aire-akrobaziak (trapezio finkoa eta soka bertikala), akroporteak, objektuen manipulazioa eta bertikalak. Haien guztiak dantza garaikidean, borroka-artearen eta keinuen antzerkian oinarrituta daude. Ahozko teknika eta interpretazioa ere presente izango da ikuskizunean.

Berrikuntzen artean, aurreko deialdiak balio handieneko proiektua eskaintzen du, Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako espazio eszenikoetan sustatutako eta kofinantzatutako bira.